



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Miren Ilarregui Belarra
Juana María Altxu Juanikorena
José María Alzuri Vértiz
*Ainhoa Bereau Alchu

2021eko otsailaren 17an, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4
Abstentzio 3

1.- 2020ko azaroaren 25eko eta 2020ko abenduaren 30eko aktak onartzea.

2. ZERGEN KUDEAKETA ETA INSPEKZIORAKO INFORMAZIO TRUKAKETARAKO HITZARMENA NAFARROAKO OGASUNAREKIN: HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak azaldu du Nafarroako Ogasunak, hitzarmen bat proposatu diela Toki Entitateei informazioaren trukaketarako eta zergen behaketa eta kudeaketan elkarlana sustatzeko. Udalak hitzarmen hau sinatzeko interesa izan lezake, hitzarmenak izan ere, TRACASA-k burutzen dituen katastro mantenu lanak merkatzea ekarriko lukeelako.

Hitzarmena aztertu ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4
Abstentzio 3

1.- Nafar Ogasunarekin hitzarmena sinatzea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

2.- Hitzarmena sinatzeko Alkatea izendatzea Udal ordezkari.

3.- Akordioa Nafar Ogasunari jakinaraztea.

3. 2. POLIGONOKO 99. LURZATIAREN PEAU, BIRZATIKETA PROIEKTUA, KUDEAKETA HIRIGINTZA HITZARMEN ETA URBANIZAZIO PROIEKTUA: BEHIN BETIKO ONESPENA.

2. poligonoko 99. lurzatiako PEAU, birzatiketa proiektua, hirigintza hitzarmena eta urbanizazio proiektua erakustaldi publikoan egon ondoren ez da alegaziorik aurkeztu (2021eko urtarrilaren 14ko NAO-n eta egunkarietan iragarri ondoren). Arkitekto aholkularien txostena kontuan hartuta (2020ko abenduaren 15ekoa) eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 25., 63., 72. eta 74. artikuluekin bat etorriz, Udalbatzak hurrengo **erabaki du**:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- 2. poligonoko 99. lurzatiaren PEAU, birpartzelazio proiektua, hirigintza hitzarmena eta urbanizazio proiektua behin betiko onartzea.

2.- Akordio hau NAO-n argitaratzea.

3.- Onetsi diren agirien kopia bat Nafarroako Gobernuari helaraztea.

4.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.

4. 2021EKO AURREKONTUAREN EXEKUZIO OINARRIAK: HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak gaia azaldu eta kontuhartzaileak prestatuturiko exekuzio oinarriak aurkeztu ditu. Gaia azaldu ondoren bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengo erabaki du**:

Alde 4

Abstentzio 3

1.- 2021eko aurrekontuen exekuzio oinarriak hasiera batean onartzea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

2.- Akordioa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez, NAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.- Akordioen berri NAO-n eta Iragarki Oholean ematea.

5. 2. POLIGONOKO 81 LURZATIAREN BIRZATIKETA PROIEKTUAREN ALDAKETA.

Udalburuak azaldu du bere garaian egin zen UE-4ko birzatiketa proiektuanakats bat izan zela eragin eremuaren barnean zeuden lurzatiaren jabeak zeintzuk ziren zehaztu zenean. 2. poligonoko 81. lurzatiaren jabeak I. A. E. eta J. M. A. O. jaunak zirela paratzen zen M. C. E. E. andrea ere jabea zela kontuan izan gabe. Gaur aurkezten den proiektu berrian jabeak zeintzuk diren (aipaturiko hiruak) ongi azaldu da. Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengo erabaki du:**

Alde 4

Abstentzio 3

1.- UE-4ko birzatiketa proiektuaren aldaketa hasiera batean onartzea.

2.- Akordioa erakustaldi publikoan jartzea 20 egunez, NAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.- Akordioa interesatuei jakinaraztea.

6. 2021EKO TASA, ZERGA ETA PREZIO PUBLIKOAK.

Udalburuak 2021eko zerga, tasa eta prezio publikoak aurkeztu egin ditu. Aurkeztutako 2021eko zerga, tasa eta prezio publikoak, 2020koen berdina dira. Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo erabaki du**

Alde 4

Abstentzio 3

1.- 2021eko zerga, tasa eta prezio publikoak onartzea.

2.- 2021eko zerga, tasa eta prezio publikoak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

7. MOZIOAK.

Ez dago moziorik.

8. ESKAERAK.

8.1.- A. M. andreak Aurtizko gurasoen izenean, aurtizko parkea gurasoen artean eta auzolanean moldatzeko materialak eskatu zituen. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 4

Abstentzio 3

1.- Eskaera onartzea.

2.- Materialak eman aurretik udalaren eta gurasoen artean behar diren materialak zeintzuk diren zehaztea.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

8.2.- Iturengo LH6-ko ikasleek eskola zaharreko gela bat ludoteka bezala erabiltzeko baimena eskatu zuten. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 4

Abstentzio 3

1.- Eskola zaharraren gelen erabilera zein izango den erabaki gabe dagoela eta beraz ezin dela oraindikan eskaera honi erantzunik eman.

2.- Eskaera aintzat hartuko dela eskola zaharraren erabilera erabakitzerako orduan.

3.- Akordioa interesatuei jakinaraztea.

8.3.- J. R. B. M. jaunak 1. poligonoko 168. lurzatian, egurra uzten duen lekuan, idorpe irrekia egiteko baimena eskatu zuen. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 4



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Abstentzio 3

1.- Eskatutakoa legez egin daitekeen kontsultatuko da eta eskaera burutzeko behar dena komunikatuko zaio eskatzaileari.

2.-Akordioa interesatuari jakinaraztea.

*Ainhua Bereau Alchu zinegotzia sartu da bilkura aretoan.

8.4.- M. A. U. G. andreak 2. poligonoko 119. lurzatiaren erabilera, urbanizaezinetik urbanizagarrira aldatzeko eskaera aurkeztu zuen. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Udala planteaturiko eskaeraren jakinaren gainean gelditzen dela. Hala ere, eskaera hau EMOTaren idazketan egin behar zela uste da eta beraz ezin da jakin Planaren idazketaaren baitan onartu ahalko denik.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

8.5.- Euskal Herrian Euskaraz taldeak laguntza eskatu dio udalari. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Euskal Herrian Euskaraz 100 euroekin diruz laguntzea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

8.6.- Herri Urratsek laguntza eskatu dio udalari. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1.- Herri Urrats 200 euroekin diruz laguntzea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

9. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (65/2020. ebazpenetik 08/2021. ebazpenera) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

10. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: FEMPeK egindako komunikazioak; Elektrikek ordaintzen duten tasa hiri lurretik haien hornidura sareak pasatzeagatik (Iberdrola eta Endesa); Ur analisisien emaitzak (aldekoak Ituren zein Aurtitzen); Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan emandako altak –A. E. S. S., J. C. E. A., L. F. M.—; Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan emandako bajak –L. F. M.—; Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan emandako izen aldaketak –I. E. G. E.-tik M. B. B.—; Udalean egindako konparezentiak abereak altan emateko –A. E. S. S., F. A. S. eta J. C. E. A.—; Landa Garapeneko eta Ingurugiroko departamentuak komunikatutako 2021eko abere erroldak; Alkateen Itunaren inguruan sinatu den elkarlan hitzarmena, inguruko udalerrien artean; NUFKek egindako komunikazioak; Malerrekako mankomunitateak egindako bilkura deialdiak; Malerrekako mankomunitateak kontrataturiko ur kaptazioen puntuen inguruko txostena (SERTECNA enpresari); Landa Antolamenduaren departamentuak emandako erantzuna EMOTean Babes Ofizialeko Etxebizitzendako erreserbarik egin behar ez izatearen eskaeraren harira (plana idazten ez den bitartean ezin dutela honi buruz erantzunik eman; NUFKek hiri eremuak berreskuratzeko emandako diru laguntza; Administrazio elektronikoa ezartzeko diru laguntza; Nafarroako Gobernuak bake epaitegien kudeaketarako emandako diru laguntza; Hezkuntza departamentuak iturengo eskolako garraiatu gabeko haurren jantoki gastuak finantzatzeko emandako diru laguntza; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazioiko Sailari egindako oihan aprobetxamendu eskaerak –M. E. A. eta L. C. M. B.—; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazioiko Sailak emadako oihan aprobetxamendurako baimenak –M. M. E. A., L. C. M. B., J. M. S. A.—; Udalak 2021eko sakabanatutako zuhaitzen aprobetxamendurako egindako eskaera; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazioiko Sailak emadako erretzeko baimenak –J. M. F. O., I. M. G. eta Iturengo Udala—; Axurdi-Maixta parajeko 2. lotearen bukaerako jasotze akta (Maderas Larretari esleitua); Jabetzaren erregistroak obra berri zahar baten inskripzioari buruz egindako komunikazioa –M. F. M. E.—; Txundinea etxeko berritzearen



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

espedientearen abiaraztea Elkargo Ofizialean; Toki Administrazioiko departamentuak egindako komunikazioa zinegotzien ordainsarien inguruan; 2021eko Nekazal ibilgailuen aldizkako azterketa teknikoaren komunikazioa (egun eta orduak); Gobernu ordezkariak baimendutako manifestazioak; UEMAk antolatzen dituen “Lurraldea eta hizkuntza” jardunaldietarako gonbidapena; Epaimahaigainen behin betiko zerrenda; Meatze, energia azpiegitura eta Industrien departamentuak egindako jakinarazpena autohorniketarako instalakuntzen inguruan.

11. GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 16:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.